

## LASTURKO HARROBIA

BALIO INTRINTSEKOA: **3**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

### GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lasturko harrobia EAEko garrantzitsuenetako bat da, eta Geoparkean harri apaingarriak erauzten dituen harrobi nagusia. 100 urte baino gehiago dira harrobia ustiatzen hasi zirela, eta beraz, bertako harria oso zabaldua dago gaur egun Gipuzkoa osoan. Lasturko harriarekin eginak dira Arantzazuko santutegia, Donostiako Boulevarda nahiz portua, eta frontoi nahiz demarri gehienak, baita harri-jatzaileek erabiltzen dituzten gehienak ere. Benetan ikusgarria da harrobia, hain du deigarria kolorea, itzelezkoak fronteak, eta oso ere handiak horman dauden eskailera-maila modukoak.

Erlo formazioko kareharri urgondarrak erauzten dituzte harrobian, Albiar garaikoak, sakonera txiki-karbonatuzko arrezife-plataforma batean eratuak. *Dukesa grisa* eta *Debako grisa* deritzen harriek (Lasturko harrobian erauzten diren harri apaingarri nagusiak) hauxe dute bereizgarri, koloreaz eta ezaugarri petrofisikoez gain: koral tabular edo esferaerdi-itxurako ugari dituztela, maiz askotan birkristalduek, bibalbioekin eta foraminifero bentonikoekin batera. Itxura masiboko kareharriak diren arren, haietako koral batere edo ia batere garraiorik izan gabeen kokapenak agerian jartzen du Geoparkeko kareharriak eratu zireneko itsas hondo arrezife-motako hark nolako arkitektura zuen, haiei erreparatuta nabarmen ageri baita bertikalean pilaketa, kolonizazio-sekuentzian edo/eta grabitate-metaketen bidez gertatua.

### NOLA BERTARATU

Gi-3292 errepeidea hartuta Sasiola auzoan, edo Gi-3210 hartuta Itziarren.

### GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ.*




Lasturko harrobiko ustiapen-fronte nagusiaren ikuspegi orokorra.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 554871 m / Y= 4787443 m / Alt.= 260 m



Molusku eta koral ugari ikusi daitezke harrobiko kareharrietan.